



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2018-06-06

BILERA ZENBAKIA:50

ORDUA ETA LEKUA: 19:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Erkuden, Leire, Rut, Jabi, Maider, Itziar.

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPEN.
2. TOPAGUNEA
3. ESKOLA ETA GURASO TALDEAREN JARDUERAK
4. ARGAZKI SAIOA
5. ELIKAGAI BANKUA ETA BOLONDRESAK
6. BESTEAK. . .

1. AZKENEKO AKTAREN ONARPENA:

Akta onartu da.

2. TOPAGUNEA.

Aurrera doa.

3. GURASO ELKARTEAN ETA ESKOLAKO JARDUERAK

Eskolan eta guraso elkartean egin dira hitzartutako saioak. Eskolakoek positiboki baloratu dute, guraso elkartekoekin hitz egingo dugu ea nola joan den. Pendiente geratzen da hurrekin egin beharreko saioa, iraila-urrian egingo da.

Harremanitzeko lantaldeari egindako saioen deskribapen eta balorazioa eskatuko zaie.



4. ARGAZKI SAIOA:

Kikerekin ordutegi bat egitea planteatzen da. Uztaileko lantalde bileran konkretatuko da. Oraingoz argazkilaritari esan behar zaio honako ekitaldietan argazkiak ateratzeko.

- Ostiral bat: haurrak gurasoekin argazkia ateratzeko.
- Ekainak 30eko topaketak.
- Ekainak 22an, errefuxiatuen eguna+murala perfilatzea.
- Zerbeza feria.

5. ELIKAGAI BANKUA ETA BOLONDRESAK.

Mataderoa jada prest da, takilak ere bertan dira. Erabiltzaile bakoitzak mataderoko giltza eta takilako giltza izango du. Ardura izan dezaten konpromiso orri bat sinatuko da.

Elikagai bankurako 6 bolondres daude. Janari banaketarako etortzen dena kontrolatu eta era berdinean banatzeko taula bat dago, hori aurrez landua egongo da, eta, kamioia etortzen denean banaketa egitea, bolondresak Jesus Marirekin koordinatuko dira, heltzen dena, bakoitzari banatuz.

Soberan den janaria erakunde ezberdinetara bideratuko da.

Erabiltzaileei dagokionez, ekainak 20an hitz egingo da beraiekin eta lokal berria ezagutzeko egun bat ere jarriko da (banaketa egingo den egunean bertan)


6. BESTEAK.

Oporrak bakean: Aurrekontura ezin da diru gehiago gehitu, ikusten den aukera bakarra bokaten dirutik zerbait bideratzea da. Baina diru hori urgentzietako izan ohi da, ondo etortzen da. Datorren urtean aurrekontuak egiterako garaian, honetarako aurrekonturik kontutan hartzeko aukera baloratuko da.

Tratu txarrak: Berdin bidean txikiak Aldundiko programarekin hitz egin da, eta, konpromisoa eskatzen dute, teknikari eta politikari batena, momentu honetan ez dago konpromisorik hartzerik eta ez gara sarean sartuko. Sarean ez bagaude ez digute orientaziorik ematen.

Tratu txarrak jasaten dituzten pertsonak askotan ez dira Gizarte Zerbitzuetara hurbiltzen, eta, horren inguruan hausnartu da. Sare lanak egin ditzakeen bestelako zerbitzurik jartzea zaila ikusten da, herri txikia baita, eta ongizate lantaldetik egin daitekeen lanketa sentsibilizazioarena dela erabakitzen da.

Esku orri bat dago informazioa era garbian ematen duena, hurrengo aldizkariarekin



banatzea planteatzen da.

Errefuxiatuak: Ekainak 20an errefuxiatuen eguna da. Hori dela eta ekainak 22rako honako ekintzak planteatzen dira.

- **Katiluen jasotze eta salmenta:** 334 katilu saldu dira. Herriko eta inguruko jendeak katiluak hartzeko aukera izan dezan mahai bat jarriko da. (16:00etan)
- **Janari bilketa errefuxiatuentzat:** Zaporeakekin hitz egin da, jasotako janaria zein izango den eta nola klasifikatu azaldu dute, kaxak ere badaude. Horrez gain aste guztian zehar Lurdesenen edukiontzi urdin bat jarriko da bilketa egiteko. Bilketan jasotakoa Zaporeak elkarteari emango zaio.
- **Ludotekako leihoan errefuxiatuen argazkia** jarriko da. (18:00)
- **Murala perfilatu:** Topaketetan, haurrek mural bat margotuko dute, murala perfilatuko da proiektore batekin, haurrek margotzeko prest uzteko.

lazko errefuxiatu egunerako muralak jarri zireneko bideo polit bat dago egina, eta, egin zen festetako argazkiak ere badaude, hauek web gunean jartzea planteatzen da, eta, zerbait egin eta proiektatzea ere aukera bezala ikusi da, baina denbora dela eta zaila ikusten da.

Harrera eguna:

Azken sei hilabetetan herrian errolatu den pertsonekin hitz egin da eta 3 pertsonak konfirmatu dute etorrera, 3 duda. Harrera egueneko informatzaileekin hitz egingo da, eta, harrera egingo zaienei berriro ere deitu. 13an burutuko da eguna.


Haurren aisia:

Eskolatik zenbait haurren aisia igarotzeko zerbitzu baten beharra ikusi da. Haurren Herria batzordean aipatuko da gaia (hurrengo bilera ekainak 21ean 18:15etan). Bestalde ludoteka zerbitzua martxan jartzea ere aukera gisa ikusten da. Horretarako lortu nahi diren helburuak eta nola lortu nahi diren lanketa bat egin beharko da. Ludotekaren proiektuari forma eman.

Gai honen harira, herriko aniztasun kulturala datorren urtean lanketa esparru gisa hartzea planteatzen da. Bizikidetzaz errazteko guneak sortzea eta sentsibilizazioa helburu izanik.

--

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Errefuxiatu eguna: Lurdesenen eduki ontzia jarri, tazen mahaia jarri, janari bilketa, argazkia ludotekan, murala.	2018-06-22	Rut



Topaketa.	2018-06-30	Denak
Hezkuntza jarduerak: Eskola, guraso elkarte, aholkulariekin balorazioa	2018-07-04	Gizarte Langilea
Janari banaketa: Bolondresak antolatu, erabiltzaileekin hitz egin	2018-07-20-23	Erkuden-Gizarte Langilea
Tratu txarrak: Legorretari galdetu ea nola lantzen den. Esku orriak badauden galdetu Eusko Jaurlaritzan.	2018-07-04	Gizarte Langilea.

HURRENGO BILERA

2018ko uztailaren 4an egingo da 19:00etan Udaletxean:

Jorratuko diren gaiak:

1. Topaketa balorazioa.
2. Janari banaketa. Jarraipena.
3. Egutegia
4. Errefuxiatu eguna. Balorazioa
5. Harrera eguna. Balorazioa
6. Eskola eta guraso taldearen jarduerak. Balorazioa.
7. Festak
8. Ongizateko etorkizunerako nahiak. (Txostenak)